

**UHARTEKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK.**  
**UHARTEKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK EGITURATZEKO ETA DINAMIZATZEKO**  
**PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN AURKEZPEN PUBLIKOA**

Uharteko Udala aitzindarietako bat izan zen Nafarroan aurrekontu parte-hartzaileak sortzen. 2016tik, parte-hartze prozesu horren bidez, uhartearrek udal-aurrekontutik 60.000 euro zein proiektutan inbertitzen diren proposatu eta erabakitzen dute.

Urte hauetan, eta kolektibo eta partikularrei esker, oso proiektu interesgarriak egin dira herritar guztientzat: rokodromoa eraikitzea, Tipu haur-parkea sortzea, erretiratuen lokaleko sukaldea eta kafetegia egokitzea eta handitzea, Aretan futbol-zelaiaren taberna eraikitzea eta aurten Berroako bidea konpontzea. Dagoeneko gauzatuta edo martxan dauden proiektu horiez gain, urteko dinamika honen bidez, udalak ezagutu ditu eta balioesten ari da beste proiektu batzuk, zenbatekoagatik edo garrantziagatik partida honen marjinak gainditzen zituztenak, adibidez, Virgen Blanca ikastetxeko kirol-pista estalia egokitzea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu dozenaka pertsona eta kolektibori egindako lanagatik, egindako ekarpenengatik, egindako hobekuntza-iradokizunengatik edo aurkeztutako proiektuengatik. Eskerrik beroenak Andre Maria Zuriaren Erretiratuen Klubari, Zumedia Guraso Elkarteari, Itaroa Futbol Klubari, eskalatzaile taldeari, Uharte Eskubaloia Klubari eta herritar guztiei.

Esperientziak erakutsi digu ekimen hau herritarrek udalerriko kudeaketa publikoan parte hartzeko modu bat dela. Oso tresna erabilgarria eta garrantzitsua da; izan ere, batetik, Uhartan bizi diren kolektibo, talde edo pertsonen beharrak bertatik bertara entzuteko eta ezagutzeko balio digu, eta, bestetik, udaletik eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea neurtzeko.

Uhartan egunerokoan egiten duten partaidetza- eta dinamizazio-lan garrantzitsua kontuan hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigu herrian dagoeneko osatuta dauden kolektiboen eta taldeen presentzia eta inplikazioa, baina prozesu hori norbanakoei ere zabaltzea nahi diegu. Horregatik, proiektuak aurkezterakoan batzuetan sortzen diren zalantzez jabetuta, aurten, Artelan enpresaren laguntzarekin, partaidetza-prozesu bat egingo dugu parte hartzera gonbidatu ditugun herritar eta kolektibo guztiekin.

Gustatuko litzaiguke urte berezi honetan gure bizilagunak animatzea ilusioz beteriko prozesu honetan parte hartzera. Prozesuaren berri izatea nahi dugu, uhartearrei laguntza

eta aholkua ematea haien parte-hartzea errazteko eta bultzatzeko, eta, horretarako, honako prozesu hau jarri dugu abian.

Uharteko Udalak urtero herrian egiten diren Aurrekontu Parte-hartzaileak bultzatu eta indartu nahi ditu. Horretarako, aurten parte-hartze prozesu bat egiten ari da Uharteko biztanle guztiekin. Uztailaren 23an, ostirala, 19:00etan, Kultur Etxean, aurkezpen publiko irekia egin zen herritar guztientzat, eta bertan prozesu honi buruzko guztiaren berri eman zen:

- Aurrekontu parte-hartzaileak; zer dira.
- Zergatik prozesu hau.
- Nolakoa izan behar da prozesua:
  - Berrikuntzak.
  - Lan-ildoak.
  - Nola parte hartu.
  - Egin behar diren jarduerak.
- Talde eragilea:
  - Zer da.
  - Nola egin behar du lan.
  - Jarduera parte hartzaileak:
    - Jarduerak.
    - Proiektuen aurkezpena.
    - Bozkak.

Aurkezpenean udalbatzako eta laguntza teknikoko kideak izan ziren, eta kultura-talde, kirol-talde eta partikularren ordezkaritza ere bertaratu zen, 17 pertsona guztira.